

# GUAIXE.EUS



Bi bertsolari gazte altsasuar sarituta



Kultura >> 22

Bizikleta festa izanen da Altsasun igandean. Haur eta gurasoei zuzenduta, ibilaldia, tailerra, jolasak eta trukea izanen da



Kirolak >> 20



Igandeko hauteskudeen ondoren 13 herrik badakite zein den alkate berria. Baita 12 kontzejutan ere.

## Bi alkateren izenen zain

>> 8-16



## Euskarazko sormenari saria

>> 3

Gaur eta bihar jaki bilketa handia egingen da Sakanan

>> 5

Trinitate festak Irurtzunen, Bakaikun eta Iturmendin

>> 5

Galiziako itsaski festa hartuko du asteburuan Uhartek

>> 5

Parte hartzea ardatz duen jaialdia Irurtzunen

160 parte hartzaile baino gehiago >> 23

Benito Lertxundi, Kalakan eta dantza asteburuan

>> 22

Aitzkozar krosa jokatuko da bihar

>> 19

**Sakanako gida** **IRAGARRI NAHI DUZU?** **Sakanako gida 2015-2016**

**AZKEN EGUNA: UZTAILAK 31**

948 564 275 · 948 562 107 · publi@guaixe.net (Eneida) · publizitatea@guaixe.net (Maria)



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.net  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



## Ane

ZORIONAK zure 8. urtebetetzean!! Opari asko jasotzea espero dugu eta bikain pasa ere!! Muxu handi bat Joseba eta gurasoen partez.

ZORIONAK artista! Egun berezi bat izan dezazula, merezi duzun moduan. Jarraitu horrelaxe urte askoan, zure irribarrea galdtu gabe! Patxo eta besarkada handi bat!



## Oihan

Beñat, zure anaiaren partez, ZORIONAK, gure atxintapururi!!

## Oihan

Bihar 5 urte, ZORIONAK familia guztiaren partez, eta egun polita pasa dezazula!!

## Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

## maiatzak-garagarrikak 29-4

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Elementuak.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Kalakan.**

**Benito Lertxundi.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 22:00etan Arbizuko kiroldegian.

**Skakeitan, lheskide eta 3gabez.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 22:00etan Etxarri Aranatzan.

**Ahuntzape, Jaramonik Ez eta Eskozor.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 23:00etan Irurtzungo Larrazpi elkartearen.

**Musikalak badatoz Lakuntzara.** Maiatzaren 31n, igandean, 18:00etan Lakuntzako kultur etxean. **Txingurriye.**

**Uluka.** Maiatzaren 31n, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

**Ikasturte akaberako kontzertua.** Garagarrikaren 2an, asteartean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Musika eta Dantza Eskola.**

### Dantza

**Dantzari egun txikia.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 11:30etik aurrera Etxarri Aranatzan.

**Ikasturte akaberako jaialdia.** Maiatzaren 31n, domekan, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Musika eta Dantza Eskola.**

**II. Altsasuko dantza topaketa.** Garagarrikaren 3an, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Antzerkia

**Nik egin beharko dut & co.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean. **Pantxika Lamur.**

### Mendi irteerak

**Altsasu-Bakedano zeharkaldia.**



**Skakeitan ariko da lheskide eta 3gabez**ekin batera larunbatean, 22:00etan Etxarri Aranatzan.

Maiatzaren 31n, domekan, goizean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Bizikleta irteerak

**Altsasu-Aralarko santutegia-Altsasu.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 8:30ean Altsasuko kultur gunean. 108 km. Aurretik izena eman. **Zikloturista taldea.**

### Irteerak

**Basora familiarekin.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 9:30ean Lakuntzako plazatik.

**Igartubeiti baserri museoa.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 11:00etan Altsasuko Itsasi euskaltegitik. **Sakanako Mintzakide.**

### Erakusketak

**Emarock.** Maiatzaren 31ra arte Etxarri Aranazko tabernetan. **Saioa Cabañas.**

**Itziar Nazabalen arte eskola.** Maiatzaren 31ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etik 21:00etara Altsasuko

lortia kultur gunean.

**Ingurumenaren hobekuntza.** Garagarrikaren 1etik 14ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Aralarko Mikel Donea institutua.**

### Literatura

**Atrapados en el paraíso.** Garagarrikaren 4an, ostegunetan, 19:00etan Irurtzungo liburutegian. **Patxi Irurtzun idazlea.**

### Tailerrak

**Elkartasun brotze tailerra.** Maiatzaren 29an, ostiralean, garagarrikaren 2an, asteartean eta garagarrikaren 4an, ostegunetan, 19:00etan Altsasuko gaztetxean. **Eduernekin bat.**

### Bestelakoak

**I. Olagarro festa.** Maiatzaren 29an, ostiralean, 20:00etatik aurrera eta maiatzaren 30ean eta 31n, larunbatean eta igandean, 12:00etatik aurrera Uharte Arakilgo

plazan.

**Euskal festa.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 11:00etatik aurrera Etxarri Aranatzan.

**Kirola euskaraz.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 12:00etatik 14:00etara Irurtzungo plazan. **Aizpea euskaltzaleen topagunea.**

**Joste eguna.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 12:00etatik aurrera Irurtzungo Foru Plazan. **Irurtzungo eta Arakilgo Gure Esku Taldea**

**Uharteko ondare inmaterialaren aurkezpena.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 18:00etan Uharte Arakilgo Larrebieta frontoian.

**Bi haitz pean.** Maiatzaren 30ean, larunbatean, 19:00etan Irurtzungo kiroldegian.

**Aniztasunaren eguna.** Maiatzaren 31n, igandean, Lakuntzan.

**Bizikleta ibilaldia, herri jolasak, bizikleta konpontzeko tailerra eta jostailu trukea.** Maiatzaren 31n, domekan, 9:30etik aurrera Altsasuko kultur gune pareko plazan.

**Joste eguna.** Maiatzaren 31n, igandean, 12:00etan Lakuntzako plazan. **Gure Esku Dago.**

**2. Joste eguna.** Maiatzaren 31n, domekan, 12:30etik aurrera Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Gure Esku Dago.**

**Mintzodromoa.** Garagarrikaren 3an, asteazkenean, 10:30ean Altsasuko azokan. **AEK.**

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 29an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztina. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Maiatzaren 31n, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

## Ostiralero SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Uharteko Pulpeiroa
- Asteburuko errepasoa
- Hauteskundeak

Esataria: Mainer

beleixe

107.3 FM

www.guaixe.eus-en ON LINE

Errepikapenak: 14:00 - 19:00



>> **Arbizu**



## Arbizuk festetako kartel lehiaketa deitu du

Aurtengo festak iragartzeko kartela aukeratzeko Arbizuko Udalak lehiaketa antolatu du. Herriko festak gai gisa hartu beharko dituzte sortzaileek euren kartel proposamena ontzeko. Irudiari ezinbestean honako testua gehitu beharko zaio: Arbizuko San Juan festak 2015. Ekainaren 23tik 28ra.

LHn eta DBHko 1. eta 2. mailan ari diren haur arbizuarrak da lehiaketako mailerako bat. Haurrek euren lanak ohiko tamainako kartulina bat izanen dute euskarri gisa eta edozein teknika erabiltzeko aukera izanen dute. Halduen mailan parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkezteko aukera izanen dute, A3 tamainakoak.

Lanak plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira asteleheneko 14:00ak baino lehen Arbizuko udaletxean. Haurren mailako irabazleak 50 euroko saria eskuratuko du, helduen mailan, berriz 150. Informazio gehiagorako: [www.arbizu.info](http://www.arbizu.info).

>> **Altsasu**

## Festak iragartzeko kartel lehiaketa Altsasun

Altsasuko Udaleko Kultura Zerbitzuak festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du, haur eta helduen maila duena. Batzuek eta besteek euren sormen lanetan honako testua gehitu beharko dute: Altsasuko festak 2015 - Fiesta de Alsasua 2015. Halduen mailan edozeinek parte hartu dezake, baina gehienez bi proposamen egin ditzake. Beti ere, originalak. Lanak A3 edo 70 cm-ko altuera eta 50 cm-ko zabalera tamaina izan behar dute eta euskarri gogor batean aurkeztu beharko da.

Festetako egitarauaren kontrazalean jarriko dute txikien lehiaketan hautatutako lana. Hartara Altsasuko ikastetxeetako LH eta DBH 1. eta 2. mailako ikasleak aurkeztu ditezke. A3 tamainako kartulina bertikalean egin behar dituzte euren lanak. Irabazleak 60 euroko saria jasoko du.

Plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira lanak lortia kultur gunean. Haurren mailako epea garrilarren 19ko 14:00etan despeditzen da. Halduen, berriz, garilarren 16ko 14:00etan.

**SAKANA**

# Euskarazko sorkuntzari sariak

**Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ilustrazio, narrazio, poesia eta komiki lehiaketetako sormen lanak banatu ditu**

Ostiralean Olatzagutiko kultur etxean egindako ekitaldian banatu zituen Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Maria Markotegi euskarazko sormen lehiaketetako sariak. Guztira 934 lan aurkeztu dira lehiaketak dituen lau sailetara: 616 ilustrazio sailean, 158 narrazio sailean, 58 poesia sailean eta 102 komiki sailean. Mank-eko euskara teknikari Castillo Suarez "atsegina" azaldu zuen sariketan izandako parte hartze handiagatik. Guztiei eskerrak eman zizkien eta irakasleei eta gurasoei eskerrak ematearekin batera "akuilu lana egiten jarrai dezaten" animatu zituen.

Ekitaldi berean euskaltegieta-ko ikasleen eta mintzakideen lehiaketako sariak banatu ziren. 56 nanoipuin aurkeztu zituzten lehia-



Euskarazko sormena lantzeagatik saritutako ikasle guztiak. Behean euskaltegiko ikasle eta mintzakide saridunak.

ketara. Suarezek euskara ikasleek eta mintzakideek euskara hobetzeko eta erabiltzeko egiten ari diren ahalegina goraiatu zuen.

Haietzoriontzearrekin batera, Castilok "euskalduntzeko bidean ez etsitzeko deia" luzatu zien. Guztira 25 sari banatu ziren, 1.460 € eta

4 pintura zorro. Gainera, euskarazko sormen lana egin dute parte-hartzaile guztiek oparia jaso dute.

| Ilustrazio saila              | Maila | Herria          | Izenburua | Saria             |
|-------------------------------|-------|-----------------|-----------|-------------------|
| <b>LHko 1. eta 2.</b>         |       |                 |           |                   |
| 1. Kaiet Arzamendi Arakama    |       | Urdiain         |           | Pintura zorro bat |
| 2. Alain Zufiaurre De la Vega |       | Urdiain         |           | Pintura zorro bat |
| <b>LHko 3. eta 4.</b>         |       |                 |           |                   |
| 1. Usune Campos Huarte        |       | Etxarri Aranatz |           | Pintura zorro bat |
| 2. Mikel Lizarraga Senar      |       | Urdiain         |           | Pintura zorro bat |

| Narrazio saila                                      | Maila | Herria          | Izenburua                              | Saria |
|---|-------|-----------------|--|-------|
| <b>LHko 5. eta 6.</b>                               |       |                 |  |       |
| 1. Iruñe Mera Suárez                                |       | Urdiain         | Ganekoren kolonizazioa                 | 50 €  |
| 2. Hodei Alegre Gil                                 |       | Altsasu         | Garbitzaile abenturazalea              | 40 €  |
| <b>DBHko 1. eta 2.</b>                              |       |                 |  |       |
| 1. Julen Soto Satrustegi                            |       | Lakuntza        | Pox                                    | 70 €  |
| 2. Aitziber Bergera Campos                          |       | Altsasu         | Iluntzearen itzala                     | 60 €  |
| <b>DBHko 3. eta 4.</b>                              |       |                 |  |       |
| 1. Naroa Legarra Marcos                             |       | Altsasu         | Eskutitzak                             | 90 €  |
| 2. Ekhi Congil Mendiola                             |       | Etxarri Aranatz | Gutiziak ez dira txantxetako kontuak   | 80 €  |
| 2. Hodei Zia Lopez                                  |       | Altsasu         | Denbora, bizitzaren oparirik hobereena | 80 €  |
| <b>Batzilergo eta Erdi Mailako Heziketa Zikloak</b> |       |                 |  |       |
| 1. Hutsik   |       |                 |  |       |
| 2. Ane Palomo Jaka                                  |       | Altsasu         | Agurra                                 | 100 € |

| Poesia saila                        | Maila | Herria  | Izenburua            | Saria |
|-------------------------------------|-------|---------|----------------------|-------|
| <b>LHko 5. eta 6.</b>               |       |         |                      |       |
| 1. Iruñe Lizarraga Ibañez de Opakoa |       | Altsasu | Nire ametsa          | 50 €  |
| 2. Ane Hernandez Zubeltzu           |       | Altsasu | Itsasoaren maitasuna | 40 €  |
| <b>DBHko 1. eta 2.</b>              |       |         |                      |       |
| 1. Nerea Lakuntza Gonzalez          |       | Arbizu  | Zu                   | 70 €  |
| 2. Iris Ramos Alvarez               |       | Altsasu | Nire, zurea?         | 60 €  |
| <b>DBHko 3. eta 4.</b>              |       |         |                      |       |
| 1. Ainhoa Imatz Asensio             |       | Altsasu | Libre, hegan...      | 90 €  |
| 2. Andrea Claver Moreno             |       | Altsasu | Agurtze-hitzak       | 80 €  |

| Euskaltegieta-ko ikasle eta Mintzakideei zuzendutako Nanoipuin lehiaketa | Maila | Herria          | Izenburua             | Saria        |
|--|-------|-----------------|-----------------------|--------------|
| <b>1. maila (B1 maila arteko ikasleak)</b>                               |       |                 |                       |              |
| Aszen Mendiola Etxarri   |       | Etxarri Aranatz | Haritz magikoa        | Liburu lotea |
| Ana Mallenco Vilches   |       | Irurtzun        | Usoa eta lore magikoa | Liburu lotea |
| <b>2. maila (B2 maila arteko ikasleak)</b>                               |       |                 |                       |              |
| Jose Mari Rodríguez Mazkian  |       | Altsasu         | Faena ederra          | Liburu lotea |
| <b>3. maila (C1 maila arteko ikasleak)</b>                               |       |                 |                       |              |
| Cristina Troyano Maldonado   |       | Altsasu         | San Pedroko baseliza  | Liburu lotea |



**Parte hartu duten ikastetxeak**

Jesusen Bihotza ikastetxea  
Aralarko Mikel Donea BHI Zelandi ikastetxe publikoa  
Iñigo Aritza ikastola  
Urdiaingo Herri Eskola  
Arrano Beltza ikastetxe publikoa  
San Donato ikastetxe publikoa  
Andra Mari ikastola  
Luis Fuentes ikastetxe publikoa  
Domingo Bados ikastetxe publikoa  
Atakondoa ikastetxe publikoa

**PPSOE, ETB digitala Nafarroan orain!**

Berria erosi taldea

**TXIKITXO**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialeku 2 - ALTSASU

**Ana Santano**

Bularra ez da soilik eilikadura  
Edoskitzerako amendako laguntza

Ikastaroa  
Ekainak 19, 17:30etan Haurdunendako  
Ekainak 26, 17:30etan Lehen egunak

635 811 106 - Gartzia Ximenez 16 - Altsasu

## barrutik kanpora

## Zementu-fabrikek osasunean eragindako kalteak kuantifikatu daitezke

Europako Ingurumen Agentziaren txosten batean, Europako instalazio handi kutsatzaileen zerrenda argitaratu dute. 622 instalazio kutsatzaileen etatik, 7 zementu-fabrikek edo magnesio oxidokoizleak dira, horien artean Morata de Tajuñako Cementos Portland Valderrivas eta Zubiriko Magnesitas de Navarra.

Komeni da gogoratzea Olaztik Portland-ek hondakinak erraus-

tu ahal izateko baimenez gain, Zubiriko plantak baino magnesio oxidokoizleko ahalizateko baimena ere baduela, gainera, azken honek baino isurpen muga handiagoarekin. Horrek ekarriko lukeen kutsadura eta gure osasunerako kalteak izugarriak lirateke.

Bada kutsadura honek populazioaren osasunean sortzen duen kostuaren ebaluazio ekonomiko

milioieurotan. Adibidez, Portland-en Morata de Tajuñako plantak eragindako kalteak 39 eta 48 milioi euro artean ebaluatzen dira eta Zubiriko Magnesitas de Navarra eragindakoak berriz 50 eta 117 milioi artekoak.

Datu hauek ezagutzea benetan da interesgarria, kutsadurak sortutako gaixotasunen tratamenduen kostuak denon artean ordaintzen baititugu, eta gaine-

ra ez dira kontuan hartzen jardueraren eragina ebaluatzerakoan.

Horren adibide argia da Nafarroako Gobernuak Olaztik Portland-i magnesita ekoizpenean gasak arazteko teknikak ez erabiltzeko salbuespena ematea, teknika horiek ezartzeak zuen kostua gehiegizkoa zelako horrek ingurumenean zekarren onura-ekin alderatuta.

Argi dago Nafarroako Gobernuarendako herritarrok gaixotasunik ez hartzea ez dela inolako onura, nahiz eta gero horien tratamenduak denon artean ordaindu izan behar.

Informazio gehiago <http://olaztinerrausketarrikez.blogspot.com.es/blogeant/edohttp://goo.gl/KvT59> helbidean.

## 3Mugak Batera

## hara zer dien

## Festa erotikorako beharrezkoak

Presaka bizi gara, baita aisialdian ere. Hiri bat lau egunetan ikusi nahi dugu, eta atsedetik hartu gabe zeharkatzen dugu. Nahi baino lehen eiakulatzen duten gizonak ugaritzeak ez gaitu harrutuko. Baldintza estresatu hauetan, nola dastatu, bada, gure kitzikapen neak? Ikuspuntu aldaketan egon daiteke gako: adibidez, aurrerantzean ahalegina egin dezakegu sexualitatea eta aisialdia beste era batera lotzen, eta bizitza sexuala beste arloen aurretik ipintzeko aukera balioetsi dezakegu, lehentasun bihurtuz.

Baina, nola egin dezakegu hori? Egunero batetik bestera gabilta, mila gauza egin nahian... adibidez, gaixotzen garenean,

munduko denbora guztia daukagula ikusten dugu. Une horietan, lehentasuna hartzen du gure osasuna zaintzeak; denbora benetan erlatibo baita. Jabetu behar dugu, lehentasunezko zat jotzen ditugun gauza horietan joaten zaiagula denborarik gehien.

Ikuspuntu berriak hartzen has gaitezke, beraz. Esaterako, bat-batekotasanaren mitoa alboratu dezakegu; oso zabaldua dago bat-batekotasanaren mitoa: kontaktu erotikoa bat-batekoak behar dutela izan, ezin direla planeatu. Ikuspuntu honek mugatu egiten du sarritan bizitza sexuala gartzea eta aberastea. Jende askok uste du, kontaktu erotikoa bat-batekoak ez badira, orduan ez

direla benetako jokabide erotikoa. Ideia hau tranpa potoloa izan daiteke.

## Bost zentzumenak

Denbora librean ondo antolatzen ez denean, askotan, galdu egiten da. Gure gaiarekin berdin gerta daiteke. Ohiko bikotea badugu, txandaka, bat izan daiteke festa erotikoen ardura, eta berak har dezake ekimena, festa horren xehetasunez arduratuz.

Batzuetan, aurretik izandako esperientziak onak izan ez badira, desanimatu egin gaitezke, eta, ondorioz, topaketa erotikoa edo autoerotismoari bere denbora eta garrantzia kentzeko joera izan dezakegu. Beraz, zerotik hasi eta esperientzia positiboak

izaten saiatzea izango da gako. Esperientzia positiboak errepikatuzeko joera dugu.

Baina, nola lortu esperientzia positiboak? Bi orrialdeotan ezin dugu guztia zehaztu, baina bai oinarriko baldintza batzuek hitz egin. Hasteko, bost zentzumenei protagonismoa ematea komeni da, guztiei: entzumena, usaimena, dastamena, ukimena eta ikusmena. Eta hauek ematen dituzten aukerak ireki, probatu. Larruazalak, esate baterako, bi metro karratu ditu batez beste! Larruazala organo sexuala da: dastatu, ukitu, ikusi, usaindu... era askotara.

Bestalde, garrantzitsua da sexu harremanez hitz egitea. Bikote edo norbanako askorentzat ez da zilegi desioez hitz egitea, edo larrua jo ondoren balorazioak egitea: zer gustatuko litzaigukeen berriro egitea, zer aldatu nahi genukeen, zer ez dugun batere

atsegin...

Bestetik, denbora saldu eta erosi egiten dugu. Saldu, gehienetan lantokian, diruaren truke. Erosi ere egin dezakegu: beste norbaitek egin ditzakeen gauzak delegatuz: etxeko garbiketak, auto konponketak, haurrak zaintzea... Norberak baloratuko du zein prezio jartzen dion bere denborari. Sinesgaitza eman dezake, baina hala da. Denok gure askatasuna kudeatzen dugu, eta aukeratu ditugun lehentasunek beste aukerak mugatzen dituzte. Gure esku dago erabakitzea (geure gaitasunen baitan) zenbat inbertitu nahi dugun gure bizitza sexuala aberasteko, bikotea izan ala ez.

Hortaz, nahi dugunari 'bai' esan eta besteari "ez" esan beharko dugu. Azken aukera hau ez da hain erraza izaten, baina "ez" esaten ikasteko teknikak eta moduak badaude, baita liburuak ere.

**Olatz Berastegi, Lilima Taldea**

## gutunak

## Nire esker ona

Arturo Carreño Parras, Altsasuko Ezker Batuko zinegotzia

Altsasuko EBren lanean batera edo bestera konfiantza erakutsi duzuen guztioi nire esker ona azaldu nahi dizuet. Bost legegintzalditan jarraian, 20 urtez, zuek emandako babes zintzoki esker-tu nahi dut. Gure babesarekin posible izan da gaur egun herri

honek Iortia kultur gunea, liburutegia, igerileku estali, jubilatutako elkarte, musika eskola, gazte txoko eta Dantzalekuko futbol zelaiaren moduko zerbitzu eta topa-guneak izatea.

Gauzak egiteko daudela badakigu eta ziur naiz 2015-2019 legegintzaldi honetan enplegu, gizarte arloko, hezkuntza, osasun, dependentsia eta garbiketarako orokorreko proiektu onak martxan jarriko direla. Haudiot hauteskun-

de emaitzek aldatu erraztu dutelako eta baliatu beharra dugu. Izan ere, azken legegintzaldi hau Altsasurendako oso txarra izanda. Datuak ikustea besterik ez dago.

Benetan espero dut udalerririk honetako normaltasun demokratikoa berreskuratzea eta politikoko berriek bere programak adostu ditzatela; akzioek herritar guztien onuragarri izan daitezela, premia dago eta. Eskerrik asko zuen babesagatik eta agur bero bat.

## objektibo tik



## Kontakt dantza:

Aurreko asteburuan Irurtzune II Euskal Herriko Kontakt intro topaketa hartu zuen. Ederki pasa zuten dantzan makina bat tokitatik etorritako dantzariak. Eskolako gimnasioa, plaza eta Pikuxar euskal txokoak hartu zituzten dantza saioak.

objektibo tik: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.net](mailto:kirolak@guaixe.net)  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitate@guaixe.net](mailto:publizitate@guaixe.net)  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net)  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Felix Alzelai  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net)  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
 s a k a n a

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## &gt;&gt; Lakuntza

## Musikalak badatoz Lakuntzara

*Grease, Mamma Mia, Cruisin for bruisin, Goazen eta Hair* musikalen pasarterik ezagunenak Lakuntzako zinean ikusteko aukera izanen da igandean 18:00etan. Ikuskizun hori Txingurriyek taldearen ekimenez sortu da, Elkartasun Egunaren barnean Kulturileren agendan.

Jakina den bezala Txingurriyen helburua da jatorri ezberdineko herri-tarrak elkar ezagutzea. Elkar ezagutu eta elkarlanean aritzeko aitzakidibertigarria aurkitu dute aurten: musikal baten prestaketa. Orain dela hilabete bat 35 lakuntzar entseuetan dabil buru-belarri, dantzak eta kantak ikasten, baina aktore nagusiei laguntzen atrezzo talde garrantzitsua ari da lanean jantziak, argiak eta bestelako detaile guztiak prestatzen. Guztiei esker



Aniztasun festa musikaz beteta dator. TXINGURRIYE

izango da igandean ikuskizun berezi eta dibertigarria ikusgai.

Musikalaren hasieran taldearen aurkezpena egingo dute, eta azken urteotan antolatutako hainbat ekintzetako bideo eta argazkiak

erakutsiko dituzte. Bukaeran, marokoar jatorriko emakumeek egindako pasta dastaketa izango da. Lan guztiari amaiera borobila emateko, parte hartzaileen aforia izango dute elkartean.

## SAKANA

## Jaki bilketa, gaur eta bihar



Jakiak biltzen.

**Nafarroako Elikagai Bankua elikagai hornitza da helburua, haiek behar gehien duten pertsonen artean banatzeko**

Premiarria duten pertsonen artean banatuko dituen jakiak bildu nahi ditu gaur eta bihar Nafarroako Elikagai Bankuak. Olio, arrain, haragi- eta barazki-kontserbak, lekaleak, gailetak eta kakao disolbagarria eskatu ditu. Baita jakiak prestatzeko energia kontsumo handia eskatzen ez duten jakiak ematea ere. Energia-pobreziak jakiak prestatzeko diru handirik uzten ez diolako jende askori. Gaur eta bihar boluntarioak denda handietako atetan izanen dira jakiak biltzen. Herrietan, berriz, aurreko aldieta-ko bilketa puntuak zabalduko dira.

## SAKANA

## Errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntza deialdia

Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntza onartu du. Errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa da deialdi honen bitartez diruz lagunduko diren euskarriak. Xede hauetarako, 500 euro erabiliko dira Euskara Zerbitzuko 2015eko ekitaldiko aurrekontuetatik. Eskabideak abenduaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dira Sakanako Mankomunitateko erregistroan.

Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari gastuaren % 50 ordainduko zaio.



Errotulu elebiduna.

Gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita dago-

en errotulua jartzen duenari % 25 ordainduko zaio. Gehienez ere 250 euro. Betiere elebitasun pizgarriaren irizpidea erabili beharko du, alegia euskarazko testuak—tamai-narengatik, tokiarengatik edo azpimarratuta egoteagatik—lehentasuna izanen du.

Aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru-esleipena, behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean, betiere diru-laguntzek deialdiari esleitu zaion diru-kopurua baino gehiago jotzen badute.

## &gt;&gt; Irurtzun / Lakuntza / Altsasu

## Joste Egunak asteburuan

**Larunbatean, 12:00etan, Irurtzunen. Igandean, 12:00etan, Lakuntzan eta 12:30etan Altsasun**

Gure Esku Dago ekimenak irurtzundarrak, arakildarrak, lakuntzarrak eta altsasuarrak asteburuko Joste Egunetan parte hartzea deitu ditu. Dinamikako kideek erabakitze eskubidearen alde dauden pentsamolde ezberdinetako herri-tarrak elkartu nahi dituzte heldu den hilaren 21ean hiriburuetan egiten diren ekitaldietan. Haietan eskubide hori irudikatzen duten hautestontzi erraldoiak eraiki nahi dituzte. Horretarako, herriz herri oihal zatiak saltzen eta haiek marraztera animatzen ari dira Joste Egunen bidez.

Gure Esku Dago irurtzundarrak eta arakildarrak bihar eguer-



Gure Esku Dago Irurtzunen, Lakuntzan eta Altsasun egin ditu deialdiak.

dian Irurtzongo plazara joatera gonbidatu ditu. Lakuntzan igandean eguerdian jarri dute hitzordua. Altsasun, berriz, hitzordua 12:30ean jarri dute Zumalakarregi plazan. Handik Foru plazara arteko kalejira abiatuko da. 13:00etan oihalak margotu edo apaindu eta elkarri josteko tartea

izanen da. Asmoa da ordu baten bueltan hautestontzi erraldoi bat osatzea. Ekitaldia alaitzeko txaranga, gaiteroak, trikitilariak eta auzatea izanen dira. Bi herrietan Gure Esku Dago ekimeneko kideek kamixetak, oihalak eta garagarriaren 21eko ekitaldirako sarre-rak salgai jarriko dituzte.



Mintzodromoan elkartutako euskaldunak.

## Mintzodromoa azokan

**Asteazkenean, 10:30ean, Altsasuko azokan AEKk antolatuta, sakandarrak parte hartzea eta ikasleekin euskaraz hitz egitera animatu dituzte**

Sakanako AEKren Itsasi euskaltegiko ikasleak heldu den asteazkenean plazara aterako dute ikasitakoa, euren euskara. Mintzodromoan egiten dute hori. Halakoetan ohienez, jendea tal-

detxoetan elkartuko da eta proposatutako gai bati buruz hizketatuko da. Denbora tarte bat pasatu ondoren, taldeak desegin eta berriak sortuko dira. Horrela, euskaldun gehiago ezagutzeko aukera dute parte-hartzaileek. Mintzodromoaren helburua euskara plazara ateratzeko eta erabilera bulkatzea da.

**Benigno**  
peluquería  
ile-apaindegia  
San Juan kalea 9, bajua  
948 467 004 · Altsasu

**LOKAL BERRIAREN MUSTUTZEA**  
EKAINAK 1EAN,  
17:30EAN  
ZATOZI!



## &gt;&gt; Irurtzun

## Trinitateko jaiak hemen dira



Trinitatea alturako bilgune bihurtuko da.

Kirola, ikuskizuna, dibertsioa... ongi pasatzeko hamaika ekitaldi antolatuko Irurtzongo Kultur Kontseiluak asteburu honetarako Trinitateko festen aitzakian. Ergako Trinitate-

ra bi egunetan igotzeko aukera izanen da: larunbatean erlojupeko igorera eta igandean erromerian. Aizpea Euskara taldearen eskutik euskaraz kirola eginez dibertitzeko

**Egitaraua**

>> **Maiatzak 30, larunbata**  
**10:00etan** II. Elojupeko igorera Ergako Trinitatera. Irteera: Foruen Plazako askatik. Ordu erdi lehenago izen ematea. Guan Taldea.  
**12:00etatik 14:00etara** Kirolak Euskaraz: spinning, kirol entramendua, zirko eta eskalada. Foru plazan. Aizpea euskaltzaleen topagunea.  
**17:00etan** Irurtzongo XXIII. Pilota Txapelketaren finalak.  
**19:30ean** Bi haitz pean jaialdia kiroldegian, sarrera doan.  
**23:00etan** Kontzertuak, Larrazpin: Ahuntzape, Jaramonik Ez eta Eskozor.

>> **Maiatzak 31, igandea**  
 Erromeria Ergako Trinitatera.  
**11:00etan** meza.  
**17:30etik 20:00etara** Ludobus: denontzako jokoak Foru Plazan.

aukera izanen da larunbat eguerdian. Larunbat arratsaldean, berriz, herriko taldeen artean prestatutako ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen da 19:30ean kiroldegian.

## &gt;&gt; Bakaiku / iturmendi

## Santa Marinaran hitzordua

Trinitate ospakizunak direla eta, igandean bakaikuarreketa iturmendiarek Urbasa gainean dute hitzordua. Aurten Iturmen-Diri dagokio festaren antolakuntza. 10:00etan botako dute mendira joateko deia egiten duten etxajua. Eguerdian auzatea izanen da Iñaki Bizkai akordeoilaria alaituta, eta 12:30ean meza. 14:30ak aldera guztiak mahaiaren bueltan bazkaltzera eseriko dira. Trinitateko plazan dantzaldia izanen dute, 18:00ak aldera herriko bidea hartu aurretik. 19:00etan San Pedro ermitaren inguruan merendua hartuko dute Iturmendiko plazan Iñaki Bizkai eskainiko duen dantzaldirako sasoi betean iristeko. 20:00etatik 23:00etara izanen da dantzaldia.



## &gt;&gt; Etxarri Aranatz

## Euskal Festa bihar

Etxarri Aranatz festa giroan mugilduko da larunbatean. 11:00etan herri mugimenduen azokak eman go dio hasiera eguneko egitarauari. Ordu erdi beranduago, 11:30ean dantzari txikien saioa hasiko da. 13:00etan, berriz, auzo arteko herri kirol probak girotuko du eguerdia. Herri bazkaria 14:30ean izanen da. Eneko Lazkoz, Iker Zubeldia eta Estiballes arituko dira arratsaldeko giroa alaitzen 17:00etarako iragarri duten triki bertso poteoan. Egunari bukaera emateko kontzertu hiru koitza antolatu dute Gaztetxean: Ska-keitan, Iheskide eta 3gabe2 taldeekin.

## Komunitatea

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) komunitateko kide nola egin jakin nahi duten guztiak eguerdian herri mugimenduen azokatik pasa daitezke. Bierrik fundazioko kide bat argibide guztiak emanen ditu ordenagailu baten laguntzaz.

## &gt;&gt; Uharte Arakil

## I. Pulpo a feira antolatu dute Uharte Arakilen

**Ostiraletik igandera bitartean Uharteko plazatik pasatzen direnek Galiziako jakiez eta ardoek gozatzeko aukera izango dute**

Uharte Arakilgo plazak Galiziako itxura hartuko du asteburuan. Izan ere, I. Pulpo a feira antolatu dute. Galiziako pulpeiro batek, Pulpeiro Barallak (Lugo) karpa jarriko du Uharte Arakilgo plazan, eta bertara gerturatzen direnek Galiziako produktuak dastatzeko aukera izango dute: olagarroa, itsaskiak, txurraskoa, kriollodelakoak, eta, jakina, guztia Ribero eta Alvario ardoez lagunduta.

Idea aurreko urtean sortuz. Uhartear talde bat oporretara joan zen Galiziarra, eta bertako herri batean Pulpeiro Barallak pulpo a feira jarria zuen. Bertara hurbildu, esperientzia gustatu eta ea Nafarroara etortzera animatuko

ziren galdetu zioten. Telefonoak trukatu eta aurten berritua ere harremanetan jarri ziren. Hitzordua lotu eta asteburu honetan guztian Galiziako olagarroa eta itsaskiak dastatzeko aukera izango da Uharte Arakilen.

**Asteburu guztian zabalik**

“Beraiek ekartzen dute dena: karpa, mahaiak, aukiak, sukaldatzeko behar duten guztia, eta, jakina, Galiziako produktuak. Eta gero egunero zabalik egongo da zerbitzua. Bertan prestatzen dituzte olagarroa, itsaskiak eta kriollo delakoak. Nahi duenak bazkaldu dezake, edo afaldu, edo besterik gabe zerbait pikatu... bakoitzak nahi duena. Ostiralean 20:00etan zabalduko dute karpa eta larunbatean eta igandean



Olagarroa eta gehiago dastatzeko aukera izanen da Uharte Arakilen.

egun osoan egongo da zabalik, 12:00etatik aurrera. Guk dakigu-

la Sakanan ez da halakorik antolatu eta esperientzia ezberdin eta

erakargarria da Sakanarako” adierazi du Uharteko bizilagun Nerea Bakaikoak.

Sakandarrei bertara hurbiltzea animatu diete. “Badakigu asteburu honetan ekitaldi ugari daudela Sakanan, baina horrek ez du galarazten tartetxo batean Uhartera hurbiltzea. Gauza batek ez du bestea kentzen. Adibidez, Arbizun Benito Lertxundiren kontzertua baino lehen Uharteko pulpeirotik pasatzea plan bikaina izan daiteke, edo Uharten afaldu ondoren Etxarriko euskal festara joateko. Edo igandean bazkaltzera gerturatzeke Pulpeiroa plan bikaina da, ezberdina eta Galiziako itsaski bikainak dastatzeko aukera ederra. Sakandar guztiak animatzen ditugu” gaineratu du Bakaikoak.

## &gt;&gt; Altsasu

## Udalak ONCEren elkartasun sarietako bat jaso du

**ONCEk udalaren Gu geu gazte programa, behar bereziak dituzten gazteendako aisialdi programa, saritu du**

Atzo arratsaldean banatu zituen Nafarroako ONCEk III. Elkartasun Sariak. Administrazio publikoaren arloan egindako lanaren aitortza jaso du Altsasuko Udalak. Ezgaitasunaren prebentzio-ara, errehabilitazioa eta inklusio-ara, arlo guztietan irisgarritasun unibertsalera eta oztopoak kentzeko hainbat programen artean Altsasuko Udalarena aukeratu zuten ONCEko ordezkariak, Gu geu gazte programaren ezaugarriak ere nabarmendu zituzten:



Herenegun banatu zituen ONCEk bere elkartasun sariak.

zeharkakotasuna eta aisia inklusiorako motore gisa hartzea.

Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak jaso zuen saria.

## SAKANA



## Doinu beroak presoan abokatuen kontrako sarekadak salatzen

Tximeleta taldeak kantu berri baten bidez Euskal Preso Politikoen Kolektiboko abokatuen kontrako Jaque Mate Pastor operatiboa salatu du. *Xake mater* kantuko hitzak Joseba Beltza bertsolariak idatzi ditu, eta Tximeletak doinu dantzagarriekin jantzi ditu. Horretaz aparte, Joseba Beramendik, Expraik, komikia egin du, bideokliparen oinarri ere badena.

## &gt;&gt; Sakandarrak #erronkarakoprest

Pakistango Hushe ibarreko biztanleen bizi kalitatea hobetzeko lan egiten du Baltistan Fundazioak. Mondragon Unibertsitatearekin batera #erronkarakoprest ekimena sortu du. Haren helburua Husheko 100 neskek eskolaratzeko aukera izatea eta bi irakasle prestakuntza ikastaro bat jasotzea. Erronka iraila bitartean Instagram edo Twitter bidez 8.035 argazki lortzea da. #erronkarakoprest traola erabili behar da haiek zabaltzeko. Guztietan Mondragon Unibertsitatearen logotipoa agertu beharko da. Mila argazki lortzen diren bakoitzeko unibertsitateak dozena bat neskei beka ematen die. Dagoeneko 36 banatu ditu.



## » Uharte Arakil

# Bizitza eta ohiturak XX. mendean

Uharte Arakilgo ondare ez materialaren aurkezpena larunbatean izango da 18:00etan Larrebieta pilotalekuan. Bertan ikusi ahal izango dira 21 herritarri grabatutako testigantzen laburpen txiki bat, XX. mendeko ohitura eta bizimoduari buruz. Egindako bilketa lan guztia Nafarroako Ondare Ez-materialaren Artxiboko parte izango da, eta kopia bat Uharte Arakilgo udal artxiboan gordeko da.

Egitasmoa 2012ko abenduan jarri zen martxan Uharte Arakilgo Udalak Labrit enpresarekin akordioa sinatu eta gero. Denbora tarte horretan herriko 21 pertsona elkarrizketatu dira; horietatik 9 elkarrizketa euskaraz egin



Uhartearrak plazan.

dira.

Aurkezpen ekitaldian Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Labrit Multimedia enpresako

ordezkariak parte hartuko dute. Elkarrizketatu bakoitzari, esker ona azaltzeko, DVD bat oparituko dio Uharte Arakilgo Udalak.

## Elkarrizketatuak:

Ricardo Goikoetxea, Ricardo Huarte, Pascual Oteiza, Maria Aizkorbe, Jesus Gorriti, Peio Gorriti, Pedro Beraza, Jose Luis Huarte, Maritxu Arraiza, Jose Mari Ustarroz, Asuncion Gorriti, Consuelo Huarte, Mikaela Goikoa, Mikaela Marin, Txomin Huarte, Patxi Betelu, Ana Mari Mendinueta, Joaquin Huarte, Joxe Gorriti, Miguel Martiarena eta Jaime Gorriti.

Nafarroako Ondare Ez-materialaren Artxiboa NUPeko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktikako Sailak sustatzen du. Orain arte 1.500 testigantza bildu dira Nafarroako 400 bat herritan. Uharte Arakilgo Udalak bat egin du egitasmo horrekin.

## » Altsasu

# Zelandi eta Iñigo Aritzako ikasleak zientzialari

Nafarroako 3 ikastetxetako 150 ikasleek Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) zientzia dibulgazio jardueran batean parte hartu dute: Landareen erabilpenak eta bere zaintzaren garrantzia. Natur Zientzien Departamentuak antolatutako jardueran, beste ikertzaileekin batera, Joseba Aldasoro ikertzaile altsasuarra ibili da esperientzia zientifikoa gizarteratzen. Zelandi ikastetxe publikoko LHko 2. mailako eta Iñigo Aritzako 3. eta 4. mailako ikasleak dira NUPko ekimenean parte hartu dutenak.

Lehenengo egunean ikertzaileen lana zertan datzan azaldu diete NUPeko ikertzaileek. Ondoren, landareen erabilerezhitzegin dute eta biodibertsitatea mantentzearen garrantziaz. Teoria jaso eta gero, praktikarapasatu dira ikasleak, eta 3-4 astetan zehar zientzialarien lana egin dute. Letxugekin egindako esperimentuan behatu eta haus-



Ikasleek ikerlarien azalpenak entzun zituzten, tartean Joseba Aldasororenak.

nartu behar izan dute ia zer gertatzen zaien ur mota ezberdinekin ureztatzean (itsasoko ura, ur zikina, ur-destilatua, simaurra...) edo urik ez ematean. Esperimentua

egin eta gero, ikertzaileekin berriz elkartu dira, eta zientzia biltzar batean egongo balira bezala, poster baten bitartez aurkeztu behar izan dituzte emaitzak.

NUParekin batera, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren menpe dagoen Zientzia eta Teknologiaren aldeko Espainiar Fundazioak babestu du ekimena.

## » Etxarri Aranatz

# Udalak torturak pairatu dituzten herritar guztiei babesa azaldu die

Estrasburgoko Giza Eskubideen Nazioarteko Auzitegiak Patxi Arratibelen auzian Espainiako estatuak Giza Eskubideen Europako Itunaren 3. puntua urratu duela ebatzi du berriki. Hilaren 22an egindako bilkuran Arratibeli eta torturak pairatu dituzten etxarriar guztiei babesa azaltzeko mozioa onartu zen Bilduren eta NaBairen aldeko bozekin eta PPren kontrakoarekin.

Udalak mozioaren bidez komisariatari tratatu txarrak ahalbidetzen dituen eta egun indarrean

dagoen legedia behingoz eta behin betiko indargabetzeko eskatu zuen, hau da, Lege Antiterrorista indargabetu eta atxilotuen inkomunikazioa bertan behera uztea. Aldi berean, "funtsezkoa den eskubide honen urraketa pairatu duten pertsonen sufrimendua aitortu eta erreparatzea" eskatu du. Bestetik, Espainiako Auzitegi Nazionalari eskatzen dio tortura eta inkomunikazioa pairatu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judicial guztiak berrikusi eta bertan behera utz ditzala.

## » Uharte Arakil

# Ikurrina mastatik kendu dute

San Juan kalean dauden hiru mastetako batetik ikurrina desagertu zela konturatu ziren uhartearrak joan den asteazkenean. Gau hartan ez zen haizeterik izan. Baina hauteskunde kanpaina bete-betean aurrera eta atzera ibili diren hauteskunde karabanetakoren batekin lotu dute hainbat uharterrek ikurrinaren desagertzea.

Mastak eta ikurrina, Uharteko eta Nafarroako banderak Guk Gureak elkarteak jarri zituen 2013ko lastailaren 11n. Egun hartan Euskal Festa antolatu zuen. Orduan Ikurren Legearen "inposizioa" salatu zuten elkarteko kide-



ek. Gaineratu zuten, "Uharteko Udalean banderarik ez jartzeko akordioaren kontra egiten du". Nabarmendu zuten: "Uhartan Espainiako banderak ez du gehien-go ordezkatzen". Bandera horren "ezarpena asimilazio saiakera" dela gaineratu zuten.



## Nonerabili

### ARGIRO OPTIKA

**ETXARRI ARANATZ**  
%15eko deskontua graduatuetan eta %5 eguzkitakoe-tan.

### ZELANDI KIROLDEGIA

**ALTSASU**  
Lehenengo matrikula doan.

### LA CIGÜEÑA

**ALTSASU**  
60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

### IZARA

**ALTSASU**  
50€ baino gehiagoko erosketetan % 5eko deskontu zuzena, enkarguetan izan ezik.

### TXIKITXO

**ALTSASU**  
60€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

### NAMASTE YOGA

**ALTSASU**  
Bi yoga klase doan

### TIPI TAPA OINETAKOAK

**ALTSASU**  
60€ko erosketatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

### VIZU ILEAPAINDEGIA

**ITURMENDI**  
30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

### ALDASORO HARATEGIA

**ALTSASU**  
30€ko erosketatik batengatik etxeko produktua opari.

### ALFA INMOBILIARIA


**ALTSASU**  
Etxe edo pisu baten erosketatik 100 €ko txeketa opari.




SAKANA

# Bi alkatetza erabakitzekeo zain

udal hauteskunde emaitzak



foru hauteskunde emaitzak



## Datuak

### Parte hartze handiena izan duten herriak

1. Ziordia %80,67
  2. Bakaiku %79,02
  3. Arruazu %75,62
- Sakanako batz bestekoa %71,01 izanda. Sei herri egon dira kopuru horren gainetik.

### Abstentzio handiena izan duten herriak

1. Iturmendi %43,23
  2. Urdiain %38,32
  3. Uharte Arakil % 34,39
- Sakanako batz bestekoa %31,05 izan da. Aipatu kopurua bederatzi herriek gainditu dute soilik.

### Boto baliogabe gehien izan duten herriak

1. Bakaiku %25,66
  2. Arbizu % 8,9
  3. Olatzagutia % 7,63
- Sakanako batz bestekoa %1,56 izan da eta 13 herriek gainditu dute kopuru hori.

### Boto txuri gehien izan duten herriak

1. Iturmendi %36,36
  2. Urdiain %24,85
  3. Arbizu %22,69
- Sakanako batz bestekoa %1,36 izan da eta 13 herriek gainditu da zifra hori.

### Babes gehien jaso duten zerrendak

1. Lakuntzako EH Bildu %78,3
2. Arbizuko EH Bildu %74,38
3. Urdiaingo EH Bildu %73,97

## Udalerrika lehen indarra

**Bildu 6:** Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia.

**Independentes 4:** Arakil, Irañeta, Arruazu eta Ergoiena.

Irañetan bost hautetsiek haien artean alkatea zein den erabakiko dute. Altsasun, berriz, Geroa Baik bost zinegotzi lortu ditu, baina alderdien arteko hartu-emanen emaitzen zain gelditu beharko da alkatetza zehazteko

Garagarriaren 13an, larunbatean, osatuko dira igandean berri ziren udalak, 15ak. Parte hartzea aurrekoan baino 3,79 puntu handiagoa izan zen. Emaitzei dagokienez, EH Bildu izan da udaletan zerrenda babestuena, 2011n Bilduk lortutako emaitza 138 bototan hobetuz. Bigarren indarrari 26,02 puntuko aldea aterako dio.



Hautagaitza independenteei eskuratu dituzten 1.824 botoek (%17,54) ibarreko bigarren indarrean bihurtu dituzte. Duela lau urte baino 1.174 sakandar gehiagok eman diete babesa hautagaitza independenteei. Geroa Baik bi herrietan aurkeztuz boz gehien lortu duen hirugarren udal indarra izatea lortu du. Baina NaBaik aurreko deialdian lortutako 445 botorak gelditu da (koalizioa orduan lau herritan aurkeztu zen).

Sakanako udaletako laugarren indarra izaten segitzen du PSNk 675 boto jasota (57 gutxiago). UPNk 219 boto berreskuratu eta ibarreko udaletarako bosgarren indarra bilakatu da. Sakandarren 262 boto galduta seigarrena da PP. Goazen Altsasu ibarreko zazpigarren aukera da.

EH Bilduren eta Geroa Bairen

botoen batuketak lau urtean 307 botoen galera islatzen du. UPNren eta PPren botoen batuketaren emaitzak aurreko udal hauteskundeekin alderatuta 43 botoen jaitsiera islatzen du.

Sakanako 10 herriek EH Bilduren alkatea izanen dute. Lau alkate independente izanen dute eta Altsasun zehazteko dago oraindik.

EH Bilduk igandean Bilduk duela lau urte baino bederatzi zinegotzi gehiago eskuratu zituen Sakanan. Bi deialdietan bost zerrenda independente aurkeztu ziren baina igandean bi zinegotzi gehiago eskuratzeko lortu zuten. Geroa Baik NaBaik lortu zituen 8 zinegotziri eustea lortu du. Igandean, bestalde, UPNk ibarrean zuen zinegotzi kopurua bikoiztea lortu zuen, seira iritsiz. Sozialistak bost zinegotzi izate-

tik hirura pasa dira. Popularrak, berriz, bi zinegotzirekin gelditu dira Sakanan. Goazen Altsasuk bi zinegotzi eskuratu ditu eta Ezker Batuak zuen zinegotzi bakarra galdu egin du.

### Generoa

Bukatu den legegintzaldian 11 alkate gizon (%73,33) eta lau emakume (%26,66) izan dira (Miren Mendiñeta arbizuarra, Maribel Senarergoendarra, Garazi Urrestarazu altsasuarra eta Gurutze Rodríguez olaztiarra). Irañeta eta Altsasuko alkatetza zehazteko zain



Udal eta foru hauteskundeak

SAKANA

| Sakanako udal hauteskundearen emaitzak |         |             |         |             |
|--|---------|-------------|---------|-------------|
|  | 2015    |             | 2011    |             |
|  | Kopurua | %           | Kopurua | %           |
| Hauteskunde errolda                    | 15.728  |             | 15.876  |             |
| Parte hartzea                          | 10.834  | %68,88      | 10.334  | %65,09      |
| Abstentzioa                            | 4.894   | %31,12      | 5.542   | %34,91      |
| Boto baliogarriak                      | 10.385  | %95,86      | 9.953   | %96,31      |
| Boto baliogabeak                       | 449     | %4,14       | 331     | %3,20       |
| Zerrendei emandakoak                   | 9.528   | %87,95      | 9.427   | %91,22      |
| Boto zuriak                            | 857     | %7,91       | 576     | %5,57       |
| Hautagaitza                            | Botoak  | Zinegotziak | Botoak  | Zinegotziak |
| EH Bildu                               | 4.528   | %43,60      | 3.283   | %32,99      |
| Geroa Bai                              | 1.526   | %14,69      | 1.971   | %19,80      |
| Independientek                         | 1.077   | %17,37      | 797     | %9,18       |
| PSN                                    | 675     | %6,50       | 732     | %7,35       |
| UPN                                    | 660     | %6,36       | 441     | %4,43       |
| Podemos-Ahal Dugu                      | 251     | %2,42       |         |             |
| PP                                     | 146     | %1,41       | 683     | %6,86       |
| Izquierda-Ezkerra                      | 146     | %1,41       | 273     | %2,74       |

| Sakanako Nafarroako Gobernurako hauteskundearen emaitzak |         |        |         |        |
|--|---------|--------|---------|--------|
|  | 2015    |        | 2011    |        |
|  | Kopurua | %      | Kopurua | %      |
| Hauteskunde errolda                                      | 15.663  |        | 15.789  |        |
| Parte hartzea  | 10.900  | %69,59 | 10.318  | %65,35 |
| Abstentzioa  | 4.762   | %30,40 | 5.471   | %34,65 |
| Boto baliogarriak  | 10.722  | %98,37 | 10.186  | %98,72 |
| Boto baliogabeak   | 128     | %1,17  | 132     | %1,28  |
| Zerrendei emandakoak                                     | 10.624  | %97,47 | 10.015  | %97,06 |
| Boto zuriak  | 148     | %1,36  | 171     | %1,66  |
| Hautagaitza  | Kopurua | %      | Kopurua | %      |
| EH Bildu   | 3.622   | %33,78 | 3.854   | %37,84 |
| Geroa Bai  | 2.735   | %25,51 | 2.498   | %24,52 |
| UPN  | 1.334   | %12,44 | 1.571   | %15,42 |
| Podemos-Ahal Dugu  | 1.281   | %11,95 |         |        |
| PSN  | 812     | %7,57  | 869     | %8,53  |
| PP   | 351     | %3,27  | 561     | %5,51  |
espero baino askoz ere arrakastatsua izan zen ekimena. "Guztira 153 bikote lehiatu ziren, espero baino askoz ere gehiago, eta Etxarrin sortuzen giroa, oso polita. Kontuan hartu behar da proba berezia dela, elkartasuna bulkatzen duelako, binaka aritzea, txikiek helduen laguntzarekin, hain zuzen. Eta, jakina, ikastolarako ekarpena egiten da. Oso kontentu gaude proba ez lehiakor honekin eta, jakina, urtero antolatzen jarraitzeko asmoa dugu" adierazi du antolaketan lanetan aritzen Amaiak Gerrikagoitiak. Halaber, Naparpelletek ekimenari ematen dion laguntza

garrantzitsua goraiatu zuten ikastolako ordezkariak, "helburua ikastola laguntzea delako".

### Mailak

Bost mailatan jokatu behar zen proba ez lehiakorra. Haur hezkuntzan 64 bikote aritu ziren, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. Mailan 48 bikote eta Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailatan 30 bikote. Azkenean, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak eta helduen mailak elkarrekin aritzea erabaki zen, eta guztira 11 bikotek egin zuten korrika. 153 bikote korrikan, ez da makala.

## Futbola



Etxarrik ligako txapeladunaren trofeo jaso zuen igandean. UTZITAKOA

## Etxarri txapeladuna, oe oe oe...

### Etxarri preferentera igo da eta bertan ariko da Lagun Artearekin. Altsasu erregional mailako talde sakandar bakarra izango da

Despeditu da erregional mailako txapelketa. Etxarri Aranatz liderak 2 eta 3 galdu zuen azken jardunaldian Lezkairuren kontra, San Donato zelaian. Egun horretan preferente mailako kopa jaso zuten etxarriarrek, eta porrota hobeto ahaztuzuten. Bestalde, Iruñean Universidad de Navarrak 5 eta 0 hartu zuen menpean Altsasu. Unibertsitatekoek dominatu zuten jokoa eta Altsasuk ezer gutxi egiteko aukera izan zuen.

Etxarri Aranatzek irabazi du erregional mailako 4. multzoko liga (77 puntu). 8 puntu atera dizkio Arrotxapeari. Etxarri Aranatz, Arrotxapea, Burlades, Aurrera eta Berriozar preferente mailara igo

dira. Han zain izango dute Lakuntzako Lagun Artea. Aldiz, Altsasu 10.a sailkatu da (42 puntu) eta hurrengo denboraldian erregional mailan jarraituko du. Talde sakandar bakarra izango da bertan.

### Altsasuko jubenilak, lehen mailara igotzeko borrokan

Nafarroako jubenilen 2. mailako ligan bigarren izan zen Altsasu eta lehen mailara igotzeko igoera faserako sailkatuzen. Bihar, larunbatean, igoera fasean, Altsasuk Tuterako Lourdes taldea hartuko du Dantzalekun, 17:30ean. Bestalde, haurren 2. mailako lehen multzoan txapeladunen fasea (1-4 postuak) jokatzeko ari da Altsasu. Bihar, larunbatean, 12:30ean, Gazte Berriaren kontra ariko da Antsoainen.

## Mendi lasterketak

## Gorka Santesteban bederatzigarrena II. Hiru Mendi Trailean

### Maite Beregaña hirugarren emakumea izan zen eta Izaskun Beunza bigarren emakumea proba laburrean

#### Sakandarrak II. Hiru Mendi Trailean:

| 27 km |                        |         |
|-------|------------------------|---------|
| 1.    | Imanol Goñi            | 2:05:26 |
| 9.    | Gorka Santesteban      | 2:17:10 |
| 18.   | Fidel Jimenez          | 2:22:53 |
| 20.   | Joxeja Maiza           | 2:23:17 |
| 27.   | Juanjo Armendariz      | 2:25:53 |
| 63.   | Fran Araña             | 2:38:04 |
| 79.   | Maite Beregaña         | 2:43:37 |
| 82.   | Mikel Satrustegi       | 2:43:48 |
| 148.  | Gorka Arratibel        | 3:00:38 |
| 12 km |                        |         |
| 1.    | Dabid Garcia           | 52:00   |
| 13.   | Alatz Agirre           | 58:58   |
| 29.   | Iñigo Urteaga          | 1:03:32 |
| 31.   | Julen Paniagua         | 1:03:55 |
| 36.   | Luis Areta             | 1:04:47 |
| 38.   | Joni Araña             | 1:05:00 |
| 40.   | Francisco Codon        | 1:05:24 |
| 41.   | Mikel Rubio            | 1:05:24 |
| 52.   | Xabier Zabaltza        | 1:06:20 |
| 56.   | David Mutilba          | 1:07:17 |
| 65.   | Izaskun Beunza         | 1:08:16 |
| 87.   | Iñaki Rubio            | 1:11:34 |
| 99.   | Fernando Mazkarian     | 1:13:25 |
| 105.  | Asier Leiza            | 1:13:39 |
| 225.  | Haizea Ramirez de Alda | 1:26:42 |
| 226.  | Unai Razkin            | 1:26:49 |
| 265.  | Marijo Arza            | 1:43:32 |



Gorka Santesteban lehen sakandarra izan zen Hiru Mendi Trailean. ARTXIBOA

lariek bi aukera zituzten: 27 km-ko lasterketa edo 12 km-koa osatzea. Guztira 479 korrikalarik lehiatu ziren. 213 korrikalarik osatu zuten proba luzea, 8 sakandarrek tartean, eta 266 korrikalarik 12 km-koa, 16 sakandarrek tartean. Guztira 24 sakandar aritu ziren eta primerako maila eman zuten.

### Santesteban 9.a eta Beregaña 3. emakumea

Faboritoez ez zuten huts egin. Proba luzea, 27 km-koa, Imanol Goñik irabazi zuen. Eako korrikalariek 2 ordu pasa behar izan zituzten proba osatzeko (2:05:26). Emakumezkoetan Laura Solagailenduzen (2:25:22),

Gorka Santesteban etxarrendarra bederatzigarrena iritsi zen helmugara, primerako lana burutu ondoren (2:17:10). Aipatzekoa da Maite Beregaña korrikalari uhartearra 79.a iritsi zela helmugara (2:43:37), hirugarren emakumea.

### Izaskun Beunza 2. emakumea laburrean

Proba motzean Dabid Garcia durangarra (52:00) eta Uxue Loizu (1:05:47) gailendu ziren. Alatz Agirre arbi-zuarra izan zen lehen sakandarra, helmugara 13. postuan iritsi eta gero (58:58). Izaskun Beunza olaztiarra 65.a iritsi zen (1:08:16), probako bigarren emakumea.

## Areto futbola

## Irurtzungo 12+12 orduko areto futbolearen izena ematea zabalik

### Ekainaren 13an eta 14an jokatu da txapelketa

Irurtzungo Atakondoa pabilioiak Irurtzungo 12+12 orduko areto futbol txapelketa hartuko du ekainaren 13an eta 14an. Antolakuntzak parte-hartze polita espero du eta sariak ere bikainak izango dira. Talde txapeladunak 700 euro eta trofeo jasoko ditu, bigarrenak 300 euro eta trofeo eta gainontzekoendako ere izanen dira sariak.

Izena ematen duten taldeak multzoka banatuko dira. Multzo bakoitzean ligaxka jokatu da eta multzo bakoitzeko irabazleak eta bigarren 3 talde onenak final laurdenetarako sailkatuko dira. Ondoren, finalerdiak eta final handia iritsiko dira.

### IZENA EMATEKO: WWW.FUTSALSAKANA.ES

Izena ematea zabalik dago Futsal-sakanako web orrian: www.futsal-sakana.es. Talde bakoitzak 100 euro ordaindu beharko ditu. Bestalde, talde bakoitzak gehienez 12 jokalarik izan ahaliko ditu eta jokalarien gutxienez adina 16 urtekoa izanen da.

## Aldaketak Magnan

### Eseverrik, Raulek eta Pablok jarraituko dute, Mario eta Murga badoaz eta Marc Tolrák oraindik ez du erabaki

Lehen mailako areto futboleko 2014-2015 denboraldia bukatuta, talde irurtzungarra hurrengo denboraldiari begira dago. Denboraldi bukaeran gertatu ohienez, aldaketak egongo dira talde berdean.

### ESEVERRI: 21. DENBORALDIA

Aldatuko ez dena taldeko kapitaina izango da. Javi Eseverri 21. denboraldia burutuko du klubean, Xotarekin beste urte baterako berritu baitu. "Fisikoki ongi jarraitzen dut eta esperientzia soberan daukat. Hortaz, taldeari ahal dudana gehien ematen jarraituko dut. Indarrak jarraitzen duten bitartean jarraituko dut" adierazi zuen Otsagiko kapitainak. Raulek eta Pablok Arregik zuzentzen duen klubean jarraituko dute ere, Imanol Arregiren esanetan denboraldi ona egindutako. Aldiz, Marioketa Murgak ez dute Xotan jarraituko eta Marc Tolrák jarraituko duen ez da jakinenez Bartzelonan denboraldia bukatu arte. Izan ere, Tolrá Bartzelonako da eta klubak hurrengo denboraldirako Tolrá berreskuratzeko aukera baitu.



Aspaldiko kontua da mendi lasterketek geroz eta zale gehiago dituztela gurean, eta hori ere argi gertatu zen larunbatean Atarrabian. II. Hiru Mendi Trail mendi lasterketa jokatu zen, eta mendi korrika-



## Atletismoa

# Iturmendik Aitzkozar Krosa hartuko du bihar



Aurreko urtekoa Bakaikun jokatu zen. Aurten Iturmendik hartuko du lekukoa.

**XI. Aitzkozar Herri Krosa** jokatu da bihar, larunbatean. Iturmendin. 17:00etan kategoria txikikoak ariko dira, eta 18:30ean nagusiak.

Aitzkozar jaioterrira itzuliko da. Lasterketa Iturmendin antolatzen hasi zen, baina 2010etik Iturmendiko Aitzkozar elkarteak eta Bakaikuko Bakarrekotxea elkarteak elkarrekin antolatzen dute. Aurten 11. edizioa izanen du aipatu lasterketak eta Iturmendiko Aitzkozar elkartearen aurrealdea izanen du irteera eta helmuga, bihar, larunbatean. Bi elkarteek Dantzaleku Sakana klubaren laguntza izanen dute proba antolatzeko eta hainbat entitate eta komertzioen babesa.

**17:00etan txikiak eta 18:30ean nagusiak**

Gazteenek emanen diote hasiera probari, bihar, 17:00etan. Aurrebenjaminen (450 m), benjaminen (560 m), kimuen (800 m), haurren

(1.600 m) eta kadeteen (2.400 m) lasterketak Iturmendiko kaleetan jokatu dira. Ondoren proba nagusiaren txanda izanen da, 18:30ean. Gazteak, helduak eta beteranoak ariko dira. Bakaikuko eta Iturmendiko dermioen artean markatutako 4.050 metroko ibilbideari buelta bakarria emanen diote gazteek, eta bi buelta helduek eta beteranoek, 8.100 metro osatuz.

### Oparia eta merienda

Iturmendiko helmugan lasterketa bukatzen duten korrikalari guztiek oparia jasoko dute. Lasterketa nagusiko irabazleek, gizon nahiz emakumeek, trofeoa jasoko dute. Behe mailan ere trofeoak banatuko dira. Eta eguna borobiltzeko, antolatzaileek merendua antolatu dute korrikalari guztiendako.

Aurreko urtean Ander Agirre bergararrak (26:58) eta Eider

### Sakanako XII. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria mustuko du Aitzkozarrek

Bihar Iturmendin jokatu den XII. Aitzkozar herri krosak mustuko du Sakanako Sakanako Mankomunitateak Lasa Kirolak babeslearekin antolatutako Sakanako XII. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria. Iturmendiko arekin batera beste 4 lasterketek puntuatuko dute koparako: Ziordiko II. Herri Krosak (ekainak 7) Ergoienako XII. Birak (irailak 19), Sakanako XV. Herri Lasterketak (urriak 24) eta Altsasuko Barricarteren XXXV. Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abendua 8).

Sakanako 10 onenek puntuatuko dute, gizonetako eta emakumetako, eta gutxienez 4 probatan parte hartu beharko da. Lehenengoek 80 euro kirol materiallean jasoko dute, bigarrenek 60 euro kirol materiallean eta hirugarrenek 40 euro kirol materiallean. Gainera, proba guztietan parte hartzen duten korrikalarien artean sari bat zozketatuko da. Aurreko urtean Javier Morenok eta Izaskun Beunzak irabazi zuten Sakanako Atletismo kopa. Francisco Javier "Pitxi" Gomez eta Maite Zabaleta bigarrenak izan ziren eta Sergio Garcia de Eulate eta Haizea Ramirez de Alda hirugarrenak.

Delais iruindarrak (34:40) irabazi zuten lasterketa eta Javi Moreno eta Izaskun Beunza izan ziren lehen sakandarrak.

### Izena emateko

Aurrez izena emateko aukera dago, 948 562 034 edo 606 398 802 telefonoetan edo [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web orrian. Baita asterketa egunean bertan, proba hasi baino ordu bat lehenago, Aitzkozarren. (helduek 5 €, txikiek ezer). DYAK proba jarraituko du.

## Mendi lasterketak



Aurreko urteko edizioako parte-hartzaileak.

## Ergako Trinitatea helburu

**II. Ergako Trinitatera Kronoigoera** antolatu dute bihar, 10:00etan

Irurtzongo Trinitateko festak dira asteburuan. Aurreko urtean La Guan taldeak Ergako Trinitatera Kronoigoera antolatu zuen, gutiz arrakastatsua izan zen ekimena. Izan ere, 38 korrikalari animatu ziren Irurtzundik abiatuta Ergako Trinitateraino korrikan joatera. Kronometratutako igoera izan zen eta Mikel Rubio irurtzundarra (21:04) eta Miren Zubieta (29:46)

izan ziren azkarrenak.

La Guan taldekoek aurten bigarrenez antolatu dute II. Ergako Trinitatera Kronoigoera. Bihar, izango da, larunbatekin. Proban parte hartu nahi dutenek Irurtzongo Foruen plazako askan eman beharko dute izena, 9:30etik aurrera. Kronoigoera goizeko 10:00etan abiatuko da toki berberetik. Helburua Irurtzundik Ergako Trinitate ermitara igotzea izango da.

## Kiroldegia

## Goazen Irurtzunen kirola euskaraz egitera!

**Aizpea Euskaltzaleon Topaguneak Kirola Euskaraz ekimena antolatu du bihar, larunbatean, 12:00etatik 14:00etara. Spinning, kirol entrenamendua, eskalada eta zirkoa eskainiko dituzte, euskaraz**

Kirolaren munduan euskara entzuten da, baina onartu beharra dago gaztelera dela kirol bat eskaintzeko orduan erabiltzen den hizkuntzarik ohikoena. Kirolak euskaraz egin ahal direla erakusteko, Irurtzongo Aizpea Euskaltzaleon Topaguneak Kirola Euskaraz ekimena antolatu du bihar, larunbat goizean, Irurtzongo Trinitateko festak direla aprobetxatuta.

Irurtzongo Foruen plazan, 12:00etatik 14:00ak bitartean, haurrek, helduek eta gazteek kirolen murgiltzeko aukera izango dute, hori bai, euskaraz.

Irurtzongo Foru Plaza gimnasio erraldoia bilakatuko da. Helduendako eta gazteendako spinning eta kirol entrenamendua antolatu dituzte, eta 16 urtetik beherakoendako eskalada eta zirkoa. "Hori bai, euskaraz. Anima zaitezte, ilobekin, seme-alabekin, lagunekin, zu zeu... kirola egin euskaraz" adierazi dute Aizpeatik.



**Jakoba Errekondo**

# Guaixe.eus

Elkarrizketak on line



**Ainhoa Aznarez**

## Maiatzean hauek izan dira

Gehiago etorriko dira!



**Joseba Eceolaza**

Egin proposamenak:

gutunak@guaixe.net

Olaztiko Gazte Asanblada





**Unai Hualde**

Elkarrizketak ikusteko: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



## Triatloia



Olatz Azazeta taldekideekin Errege Kopan.

## Olatz Azazetaren Saltoki seigarrena Errege Kopan

Marina D'Orren Espainiako Eskola mailako klubeko Triatloi Txapelketa jokatu zen eta Olatz Azazeta seigarrena izan zen Errege Kopako taldekako txapelketan

Maiatzaren 16an eskola mailako klubeko Espainiako Triatloi Txapelketa jokatu zen Oropesa del Marren, Marina D'Orren. Tartean, Errege Kopa jokatu zen, taldeka. Emakumezkoetan 16 talde lehiatu ziren, 204 guztira, eta 750 m igerian, 20 km bizikletan eta 5 km korrikan egin behar izan zituzten. Tripuñol taldeko emakumeak, Maria eta Ana Rubio, Ainhoa Collado eta Sara Alemany, izan ziren azkarrenak (24:06). Saltoki-Trikideak taldeko emakumeak seigarrenak sailkatu ziren (27:43). Tartean zegoen Olatz Azazeta Pelaez altsasuarra, eta berarekin bate-

ra Amaia Navarro, Laura Aparicio eta Nerea Berasategi. Beste behin, maila bikaina eman zuen Azazetak.

### Maiztarrak Hondarribin: Iñigo 133.a eta Juan Luis 146.a

Larunbatean Hondarribiko VII. Sprint Triatloia jokatu zen, sprint distantzian (750 m igerian, 21,7 km bizikletan eta 5 km korrikan). 348 triatleta iritsi ziren helmugara, Ander Okamika (1:10:57) eta Tamsyn Moana-Veale (1:19:41) buru zirela. Maiza aita-semeak aritu ziren proban. Iñigo Maiza 133.a iritsi zen (1:26:17) eta Juan Luis Maiza 146.a (1:27:26).

Larunbatean Antsoaingo Triatloia jokatu da eta tartean sakanadarrak ariko dira.

## Txirrindularitza

# Bizikleta festa bikaina igandean Altsasun

Mankomunitateak antolatuta, bizikleta ibilbidea, herri jolasak, tailerrak eta material trukea izanen dira 9:30etik aurrera Iortia plazan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Immigratio zerbitzuak bizikleta festa antolatu dute Altsasun, maiatzaren 31rako. Eki- mena antolatzeko ondoko talde eta entitateen laguntza izan dute: Altsasuko Udala, Barranka Txirrindularitza Taldea, Berri Bikes denda, Muruzabal bizikletak eta Altsasuko, Urdiaingo eta Olatziko ikastetxeak, Zelandi, Iñigo Arizta, Jesusen Bihotza, Domingo Bados eta Urdiaingo herri eskola, hain zuzen. Ekimena adin guztietako jendearendako prestatu da, baina 10 urtetik beheragoko neska-mutikoak lagunduta parte hartu beharko dute.



Txirrindulariak Sakanako Bizikleta egunean.

### Bizikleta ibilbidea, herri jolasak eta tailerrak

Altsasuko Iortia plazan burutuko da bizikleta festa, maiatzaren 31n. Eguraldi txarra egiten badu, aldiz, Burunda pilotalekuan. Goizeko 9:30ean 2 orduko bizikleta ibilbide erraza prestatu da, ez lehiakorra. Kaskoa, mendiko bizikleta eta ogitartekoa eraman beharko dira, eta aurretik bizikleta puntuan jar-tzea eskatzen da. Ezingo da parte hartu aurretik izena eman gabe (Mank-eko kirol zerbitzua (948 464 866) edo immigrazio zerbitzua (648 070 710)). Segurtasunagatik, partai-

dé guztiek antolakuntzaren ibilbidea jarraitu beharko dute uneoro.

Ibilbidea egin ondoren, 11:30ean, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailendako ikasleendako herri jolasak antolatu dira: zapiak, koskolak, soka saltoa... Aldiz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailakoek bizikleta konpontzeko tailerren parte hartzeko aukera izango dute.

**Kirol materialen trukaketa** 12:30ean jostailuen eta kirol mate-

rialaren trukea egiteko aukera izango dute guztiek: patinak, raketak, bizikletak, patineteak, palak, baloiak, esku pilotak, eskiak eta beste trukatu ahalko dira. Gauza hauek guztiak ikastetxean jasoko dira aurretik, eta produktuak utzi dituztenek txartela jasoko dute egunean beste produktu batekin trukatzeko.

Eguna bikain bukatzeko, 13:00etan auzatea izanen da eta partaide guztien artean oparia zozketatuko da.

## Txirrindularitza

## Josu Etxeberria bigarrena Villatuertan

Iturmendierra irabazlearengatik 53 segundora sartu zen

Larunbatean 28. Talleres Guro Trofeoa jokatu zen Villatuertan, kadeteen mailako 54 km-ko lasterketa. Zirauna taldeko Oier Lazkanok irabazi zuen (1:25:39), helmugara bakarrik iritsi eta gero. 53 segundora 2 txirrindulari sartu ziren, tartean Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Josu Etxeberria. Iturmendierra probako bigarrena izan zen eta lehenengo urteko kadeterik onena. Tropela 1:03ra sartu zen. Tartean zeuden Intersport Irabiako Unai Lizarraga, 10.a, eta Quesos Albenizeko Ailetz Lasa, 12.a. Hodei Zia 24.a iritsi zen (1:28:45) eta talde bereko Oihan Vinagre 30.a (1:30:19). Quesos Albeniz probako hirugarren talde onena izan zen.

Legazpian juniorren mailako lasterketa jokatu zen. Quesos Albenizeko Eneko Aramendia zazpigarrena sailkatu zen eta bere taldekide Asier Etxeberria hamabosgarrena. Bestalde, eskola mailakoek proba izan zuten Tafallan. Ginka-



Etxeberria taldekideekin.

na probak belodromoan egin zituzten eta lasterketak Tafallan, hain zuzen, bizia nagusi zela. Aralar eta Burunda klubetako txirrindulariek lan polita egin zuten.

### Afizionatuek 54. Nafarroako Itzulia jokoan

Afizionatuek 54. Nafarroako Itzulia jokatu dute asteburuan. Aurtan bi etapa izango ditu itzulia. Gaur Lizarte-Lizarran etapa jokatu da (141,7 km) eta, larunbatean, Lizarran hasi eta Iruñean despedituko da lehia (147 km, Etxauri, Girgillano eta Belaskoain gainak tartean). Afizionatuen puntuko tropela lehiatuko da bertan, Sakanako Rural Kutxa tartean.

## Mendia

## 146 ikasle Sakanako orientazio proban



Mank-eko kirol teknikariak azaldu duenez, aurtin Inoiz baino azkarrago bukatu zuten orientazio proba.

Altsasuko Institutuko, Aguraingo eta Etxarriko Andra Mari ikastolako 146 ikaslek parte hartu zuten asteartean Arbizuko mendian antolatutako orientazio proban

Arbizuko Zubaat eta Sandindegi inguruek beste behin ikasleendako Sakanako orientazio proba hartu zuten atzagoizean. Sakanako eta Aguraingo ikastetxeek antolatu zuten, Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin. Altsasuko Institutuko 75 ikaslek, Aguraingo 45 ikaslek eta Etxarriko Andra Mari ikastolako 26 ikaslek parte hartu zuten, 146 ikaslek guztira.

Jarduera DBHko 4. mailako ikasleei zuzendua dago eta Andra Mariren kasuan 3. mailakoek parte hartu zuten. Orientazio probarekin ondoko helburuak bulkatu nahi dira: basoan segurtasunez ibiltzen ikastea, mapa bat interpretatzen jakitea eta baita iparrratza erabiltzen ikastea ere. Aldi berean, aisialdian naturak eskaintzen dituen aukerak eta Sakanako naturaguneak ezagutarazi nahi dira eta Sakanako eta gertuko ikastetxeen eta ikasleen arteko harremanak bulkatu.

### Balorazio positiboa

Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak aipatu digunez, ongi joan zen orientazio proba. "Inoiz baino azkarrago bukatu zuten proba, baliza gehienak aurkitu zituzten talde gehienek, eta talde askok guztiak. Irakasleek adierazi digute aurtin orientazio proba hobeto prestatzeko denbora gehiago izan dutela, saio gehiago egin dituztela ikastetxeetan, eta hori nabaritzen dela" adierazi du Gerrikagoitiak, orientazio probaren balorazio positiboa egin.





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 197 070**

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza [www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



**Oroigarriak egiten ditugu**

Nahi duzun argazki eta testuarekin

**GUAIXE KOMUNIKAZIOA**  
948 564 275  
Foru plaza 23-1 Altsasu  
argi@guaixe.net



**Juan Ignacio Erdozia Larraza  
Fidel Larraza Marin  
Fco. Javier Guruzeaga Etxarri  
Felipe Ceberio Maiza**

Parrandan ere gogoan zaituztegu.  
**1953ko kintuek**



**Kontxi Morcillo Larraza**


Ez dugu inoiz zure alaitasuna eta zein ondo pasatzen genuen ahaztuko.

**Altsasuko zure lagunak**

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin  
948 564 275 telefonora**



**Manuel Mundiñano Ezkutari**  
III. urteurrena  
**Alejandra Orayen Oroz**  
XXX. urteurrena

Bere sorterrria nekez uzten du, sustriak han dituenak.  
Beti gu biyotzetan zaudie.

**Etxekuek**



GRUPO Funeraria **VASCONGADA** Ehorzketak TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980**

**guaixe.iragarkilaburrak.com**

|                  |               |                 |
|------------------|---------------|-----------------|
| 1 HIGIEZINAK     | 4 DENETARIK   | 7 AISIA/KIROLA  |
| 2 TEKNOLOGIA     | 5 IBILGAILUAK | 8 FAMILIA/ETXEA |
| 3 LANA/NEGOZIOAK | 6 HARREMANAK  |                 |

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**  
Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).  
Argazki bakoitzeko 3€.  
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

**HARREMANETARAKO**  
Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

**Higiezinak**  
**ETXEBIZITZAK**  
SALGAI

**Pisua salgai Etxarri Aranatzan.** 83m erabilgarriak, oso eguzkitsua eta bista ederrekin, berogailua, berritua... 70.000 €. Tel 654 23 41 02

**LOKALAK**  
ERRENTAN EMAN

**Aitziber elkarteko taberna alokatzen da.** Uztaileko eta abuztuako festetarako. Etsaipena subasta prozedura erabiliz egingo da, edozein bazkidek lehenetsunez hartzeko eskubidearekin. Alokairuaren irteeraren prezioa 2.000 €. Interesa duten guztiak, Aitziber elkartearen aurkeztu behar dute, ekainaren 18an, iluntzeko 20:30ean, eskaintza ekonomikoa sobre itxi batetan sartuta. Informazio gehiago aitziberelkartea@gmail.com helbidearen bitartez.

**Lehiaketa**  
2015eko Arbuziko San Juanetako kartel

**lehiaketa.** Epea ekainaren 1era arte Arbuziko udaletxean. Info gehiago [www.arbizu.info](http://www.arbizu.info). Animatu eta parte hartu.

**Oharrak**  
**Odol-emeleak.** Ekainaren 9an Arbuzun eta Uharte Arakilen arratsaldean.

**Arbizuko udako ludoteka.** Galtzagorri ludotekak uztailaren zabalduko ditu ateak. Ludotekara haurrak bidali nahi dituzten gurasoek bakoitzeko haur bat 80 €, bi 130 € eta hiru 150 €, uztailaren 1etik 31ra ordaindu beharko dituzte. Interesa dutenek udaletxera joan beharra dute izena ematera ekainaren 10a arte.

**Etxarriko irakurle taldea.** Garagarriaren 11n, osteguneko, 19:00etan Etxarri Aranazko liburategian elkartuko dira. Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" liburua ariko dira hizketan.

**Gure Esku Dago.** Ekainaren 21erako Iruñeko zezen plazan antolatu duen ekitaldirako sarrerak

ostiralero Altsasuko plazan salgai.

**Bertso-udalekuak.** Euskal Herri osoko haur eta gazteek parte hartu dezakete bertso-udalekue-tan. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsozale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

**Iruñeko euskarazko telebistaren alde.** Xaloe telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? [www.karena.eu/proiektua/xaloe-telebista-iruñerrian](http://www.karena.eu/proiektua/xaloe-telebista-iruñerrian) edo Iruñeko Kariakiri Euskal dendan (Xabier Kariaka 4) eta Katakarak liburudendan (kale Nagusia 54).

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren zuzendaritza. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

**Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.** Diru bilketa hasi dute, Ahotza behar dugu lelope-

an. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

**Tartalariendako laguntza.** Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

**HERIOTZAK**

• **Antonia Malato Cantero,** maiatzaren 24an Iturmendin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com)



# kultura >>

## Nafarroako Bertso-eskolen Egunetik **sariekin bueltan**

**Nafarroako Bertso-paper Lehiaketan saria eskuratu dute bi altsasuarrek**

Landean Lesakak Nafarroako gazteen Bertso Eskolen Eguna hartu zuen. 10 eta 15 urte bitarteko 60 gazte elkartu ziren. Zazpi bertso-eskoletako ordezkariak izan ziren topaketan, sakandarrak tartean. Bertsoan ospatu zuten eguna, jakina. Bertso-eskola bakoitzaren agurrarekin hasi zen saioa. Ondoren Nafarroako

Bertso-paper Lehiaketako saridunen lanak entzun eta sari banaketa ekitaldia egin zen.

Hura bukatuta, gazteek inprobisatzeko aukera izan zuten: gai orokorra, bukaerako puntua eta lau oinak emanda bat-batean aritu ziren; beti ere, jolas gisa parte-hartzea bultzatuz. Arratsaldean, berriz, taldeen arteko harremanak indartzeko, herrian barrena pista-jolasean aritu ziren ikasleak. Lesakako hainbat bertsolari iden-



**Nafarroako Bertso-paper Lehiaketan sarituak**

**DBHko 1. eta 2. mailan irabazlea:** Ekain Alegre (Altsasu)  
**DBHko 3. eta 4. mailan irabazlea:** Idoia Granizo (Altsasu).

tifikatu eta haien bertso bana kantatuz eman zitzaion akabera aurtengo Nafarroako Bertso Eskolen Egunari.



## Benito Lertxundiren kantaldia

**Larunbatean, 22:00etan, Arbizuko kiroldegian**

Bere azken lana, *Oroimenaren Oraina* (2012, Elkar) diskoa aurkeztera etorriko zaigu larunbatean Benito Lertxundi. Zortzi kantuk osatzen dute diskoa. Oriotarrak duen eskarmentuarekin, ohi duenez sortze lan zaindua eskaini zuen azken lanean, sakona eta sentzuala era berean. Lurpean zehar erretena irekitzen doan ur isuriaren antzera, bizitza, nor-

beraren barruan gertatzen eta gartzatzen doan zerbait dela argitzen dute poesiek eta kantuek. Benito Lertxundik esperientzia hori berekin partekatzeko gonbitea luzatzen digu disko berrian. Lau hamar-kada baino gehiago kantuan darma kantariak eta gitarra aldean duela, atzera ere, Arbizuko kiroldegiko eszenatokira igoko da.

Sarrerak aurretik Arbizuko Kiroldegi eta Karrika tabernetan eta Altsasuko Biltoki tabernan eta Kutxabanken daude salgai.

## Elementuak aurkeztuko ditu Kalakanek

**Bihar, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. Sarrerak agortuta daude**

Apirilaren 13an aurkeztuzuen Kalakan taldeak *Elementuak* diskoa. Aurreko bi urtetan egindako lanaren fruitua da 14 kantuz osatutako diskoa, soilik kontzertuetan erosi daitekeena. Thierry Biscaray Ttirrittek, Jamixel Bereauk eta Xan Errotabeherek Madonnarekin bira egin ondoren talde gisa

euren nortasuna berriro opatzen eta euren elementuekin berkonektatzeko lanean aritu dira.

Hala, oinarrietara bueltatu da hirukoa, guztia hasieratik berriz hartuz. Hiruek azaldu dutenez, bigarren diskoan jasotako emaitza "sinplea eta findua" da, "bere erralitatearen aztarna". 14 konposizioen artean instrumentalak, ahots hutsekoak, euskal kantuen moldaketak eta haien sorkuntzak tartekatzen dira.



## Teatreves sariak banatuak

Altsasuko Amateur Antzerki Zikloaren, Teatrevesen, antzezlari bakoitzaren ondoren Tarima Beltza taldeak sari bikoitza zozketatu du. Altsasuko Dendari Elkartearen establezimendutik 30 euro gastatzeko txartela eta Xurrutek, Alde Zaharreko tabernariaren elkarteak emandako ardo botilek osatu dute saria. Larunbatean despeditu zuen zikloaren bosgarren edizioa Deikatzeluko Atarapanta antzerki taldeak Tres sombreros de copa antzezlariarekin. Haren ondoren, Tarima Beltzako kideek saria eman zioten Maria Jesus Somocurciori.

## bazterretik

**Aurkene Ormazabal**

### Atelier baten barruan...

Dena kafe batekin hasten da, non bezero bakoitzak niregandik espe-ro duena kontatzen didan. Bezero bakoitza bakarra da, besteekiko desberdina, hitz batean esanda, berezia da. Hala ere, denek daukate zerbait amankomunean, ekitaldi konkretu baterako jantzi ezberdin bat nahi dute, haien zalogarantzitsua delako edo egun horretan eroso sentitu nahi dutelako, haien pertsonalitatea erakutsiz. Horrela, informazio asko trukatzeko, gehiago ezagutzen dut

bezeroa eta tarte horretan inspirazio iturria garbi edukitzea izaten da helburua. Informazio guzti honekin, analisi zehatz bat egiten dut. Kolore, forma edo ehun egokiak aukeratzen ditut bezeroaren itsura nabarmentzeko. Puntu honetara helduta, papera eta arkata hartu eta ideiak marrazten hasten naiz, beti ere inspirazio iturria kontuan hartuz. Mahaia diseinu desberdinez betetzen dut, soineko motzak, luzeak, prakak, alkandorak, gonak... milaka eta milaka proposamen eta azkenean horietatik bost aukeratzen ditut bezeroari

erakusteko. Bezeroak behin diseinua aukeratzeko duenean, lan tekniko hasten da. Lehenik eta behin, bere patroia basea eraikitzen dut, hau egiteko, lehendabizi bezeroaren neurriak hartu behar dira, gero eta neurri gehiago hartu, patroia zehatzagoa izatena. Ondoren, transformazioa egiten da, hau da, patroia baseari gure diseinuaren itxura ematen zaio. Ikusteko prozesu osoa ondo dagoela, proba bat egiten da, tole deitzen zaio, retor ehunarekin egiten dena eta bertan patroian egindako akatsak ikus ditzakegu. Ehuna mahaigainean jarri, patroiak

banan-banan ehunaren gainean ipintzen dira, denak norabide berean (harian, esaten den bezala) eta orduan... guraizeak hartu, eta moztu hasiko gara. Lan hau oso garrantzitsua da eta gehienetan pazientzia handiarekin egin beharrezkoa, normalean ehunak mugitzen dira eta oso erreza da gaizki mozte. Horrela, pieza guztiak ebakita, soinekoa josiko dugu erreferentzi bezala bozetoa hartuta. Ematen du gure jantziaren prozesua bukatu dela, baina oraindik azken ikutuak falta dira, eskuz egindako lana gelditzen da, non orratza hartu behar dugun gure lana



borobiltzeko. Gure jantzia lisatu eta bezeroari deitu... kafetxo batekin gure lana bukatzen da.





## Bi haitz pean, parte hartzeari eskainitako jaialdia

**Larunbatean, 19:30ean, Irurtzongo kiroldegian Irurtzongo herritarren parte hartze aberatsaren eta herriko taldeen eta kolektiboen jardunaren isla izanen da jaialdia. Sarrera doan**

Irurtzunen elkartegintzaren eta haren dinamika aberatsaren eta biziaren isla izanen da bihar emanen den Bi haitz pean jaialdia. Kultura, kirol, elkartasun, immigrazio eta bestelako taldeetan ari diren pertsonen arte-

an, parte hartuz eta elkarlanean, prestatu dute jaialdia. Biharko emanaldiarekin herriko kolektiboen arteko parte-hartzeari bultzada ematea eta hura lantzea lortu nahi da. Bide batez, garai bateko eta oraingo istorioen bitartez, parte-hartzearen edota elkartasunaren moduko balioen garrantzia nabarmentzea.

Irurtzundarrek prestatu duten jaialdiak hamar zati ditu, eta guz-

tietan parte hartzen duten kolektiboetako kideek jokatzeko dituzte. Hamar saio horiek josiko dituen hari muturra, ikuskizuna bideratu eta beharrezko kohesioa emanen diona garai bateko eta gaur egungo parte-hartzea izanen da. Guztia irurtzundar eta arakildar askorendako leku adierazgarria eta magikoa den Bi haitz pean kokatuta. Guztiek ere eskarmentua badute. 2012ko garagarzaroren 2an, Trinitatefes-

**160 parte-hartzaile baino gehiago**

Arte plastikoak, Beti Orritz Fanfarrea, Txikien dantza eskola, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Irurtzongo Abesbatza,

Irurtzongo antzerki tailerra, Iskidi, Musika Eskola, Orritz dantza taldea, Trikitixa taldea, txalapartariak eta Txistulari taldea. Jokalari horietaz aparte, hura antolatzen laguntzaile talde bat dago.

tetan, helburu berazuen beste jaialdi bat antolatu zuten: Ortzadarraren Zinta Dantza jaialdia. Orduan

bezala bihar ere ikuskizun anitza eta, nola ez, parte-hartzailea eskainiko dute.

## Altsasuko dantza topaketa

**Asteazkenean, 18:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean herrian praktikatzaren diren hiru dantza motekin gozatzeko aukera izanen da**

Euskal dantzak, dantza garai-kidea eta gimnasia erritmikoa. Hiru horiek ikasteko aukera dago Altsasan. Haietan ari diren ikasleak dantza jaialdia eskaintzeko elkartuko dira. Dantzari talde bakoitzak 20 bat minutuko eszenatokitik dakiena erakusteko. Topaketan ikusiko diren koreografiak Altsasuko dantza ikasketen erakusketa bihurtuko dira. Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzuak



sustatu du dantza topaketa, bigarren urtea duena.

## Dantzari txikien txanda

**Larunbatean, 11:30etik aurrera Etxarri Aranatzan**

Euskal Festarekin batera Dantzari Txiki Eguna hartuko du bihar Etxarrik. Etxeko, Etorrizuna dantza taldeko dantzariekin batera Gasteizko Jare dantza taldekoak ariko dira. Herrian barnako kalejira koloretua eginen dute dantzari txiki guztiek. Ibilbidean dakitena, dantza, erakusteko bizpahiru geldialdi eginen dituzte. Geldialdi bakoitzean dantza talde bakoitzaren saio pare bat izanen da.



Kalejira plazan despedituko dute dantza jaialdia eskaintzeko. Agintariarena eta Agurra denek batera dantzatu ondoren, talde bakoitzak

hiruzpalau dantza eskainikodizkiete ikusleei. Elkarrekin fandangoa, arin-arina eta Txulalai dantzatzu despedituko dute eguna.

## Irurtzun idazlea Irurtzunen

Ostegunean, 19:00etan, Irurtzongo liburutegian

Patxi Irurtzun idazlea liburutegi publikoan izanen da ostegunean, *Atrapados en el paraíso* liburuz hizketan. Bidaia lehiaketa batean 6.000 euro irabazi eta Manilako hondakindegira joandakoaren pasadizoak jasotzen ditu liburuak. Irurtzongo irakurle taldeak irurtzundarrei literatur topaketara joateko gonbitea luzatu die.



## Ikasitako dantza pausoak erakusteko garaia



**Domekan, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean**

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan ari diren dantza ikasleek ikasturte akaberako jaialdia eskainiko dute. Aurrekoetan dantza tradizionalerik osatutako jaialdia eskaini izan dituzte eskolako ikasleek. Orain-

go honetan, berriz, dantza tradizionala oinarri izanda sortutako koreografia berriak eskainiko dituzte. Inaki Agirre Larrazarekin trebatzen ari diren 100 bat ikasle ariko dira Iortia eszenatokian. Bost urteko dantzariekin batera helduak ariko dira. 80 minutuko ikuskizuna iragarri dute.

## Uluka despedituko da Emaplaza

**Igandean, 19:00etan, Etxarri Aranazko plazan kontzertua**

L audio, Arrankudiaga eta Zollo herriarabarretatik etorriko da musikari laukote bat Etxarri Aranatzera. Lau emakume gazte kantarik osatzen dute Uluka taldea. Ahotsak gitarra, trikitixa, koilarak eta bestelako tresnekin laguntzen dituzte. Haien errepertorioa betiko herri kantak, abesti modernoagoak eta haiek sortutako piezek osatzen dute. Haiek itxiko dute Emaplaza zikloa. Emakume musikariei ikusgarritasuna ematea helburua du egitasmoak. Ansa Ahizpek zabaldu zuten euskal giro goxoaz zabalduz plaza. Pasa den igandean Las Guindillas aragoarrek ederki girotu zuten plaza.

Emakume musikariak ikusgarri egin nahi dituen Emarock era-



kusketa, bestalde, Etxarri Aranazko tabernetan ikusgai dago. Oholtza gainean ari diren emakume musikarien aukera eta aniztasun zabala ikusteko aukera ematen. Erakusketan sakandarrak ageri dira. Hura laguntzen duen dokumentala ere ikusteko aukera izan zen hilaren hasieran. Dokumentalean lan egin zuten artean Olatz Aldasoro eta Itxaso Albarrazin zeuden.



**G** asteko >> : eguraldia

|                |                |                |                |                |                |                 |
|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|-----------------|
| ostirala       | larunbata      | igandea        | astelehena     | asteartea      | asteazkena     | osteguna        |
|                |                |                |                |                |                |                 |
| euria: 15%     | euria: 15%     | euria: 8%      | euria: 23%     | euria: 43%     | euria: 13%     | euria: 10%      |
| Min: 9 Max: 15 | Min: 8 Max: 15 | Min: 7 Max: 21 | Min: 9 Max: 19 | Min: 9 Max: 17 | Min: 8 Max: 21 | Min: 10 Max: 25 |

: temperatura>>

|            |         |         |                        |
|------------|---------|---------|------------------------|
|            | Max. °C | Min. °C | euria l/m <sup>2</sup> |
| Irurtzun   | 20      | 6       | 2.6                    |
| Etxarri A. | 19.3    | 5.5     | 5.9                    |
| Altsasu    | 15      | 7       | 7.9                    |
| Aralar     | 10      | 0.6     | 23.2                   |
| Urbasa     | 14.3    | 5       | 4.2                    |

: ilargiaren aldia>>

|        |          |         |        |
|--------|----------|---------|--------|
| ilbete | ilbehera | ilberri | ilgora |
|        |          |         |        |
| 2      | 9        | 16      | 24     |

**EGOKI** VENTANAS PVC LEIHOAK KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

www.ventanasegoki.com egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor SISTEMA BERRIA KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

**Maiatzeko bazkide zozketa**

**MAIATZEKO SARIAK:**

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrera.

2., 3. ETA 4. SARIA: Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

**>> 11 galdera**

**Fran Perez**  
Soinu teknikaria

Testua: Maialen Huarte Arano



**Bizikletak udarako dira Guaixeko gehigarria ekainean**

**Publizitatea hemen:**  
948 564 275  
publ@guaixe.net  
publizitatea@guaixe.net

**1. Noiztik duzu grabazio estudioa Altsasan?**  
Duela bi urte inguru ireki genituen ateak. Soinu teknikaria naiz eta duela bi urte arte kontzertuetan aritu naiz soinu teknikari. Baina, estudioa irekitzea erabaki nuen, ekimen berri gisa. Proba gisa.

**2. Nolatan ireki zenuen?**  
Fontak (Frenetik musika taldeko baxu-jotzaileak) animatu ninduen estudioa irekitzera. Euren harreman handia izan dut, kontzertu askotan soinu teknikaria izan naiz eta harekin batera estudioaren abenturan murgildu naiz.

**3. Soinu teknikaria zara. Aurretik zertan ibili zara?**  
Produktore lanetan aritu naiz, baina bereziki musika taldeen zuzeneko kontzertuetan teknika-ri lanean aritu naiz, eta orain ere banabil.

**4. Estudioan ez zara bakarrik aritzen.**  
Fontak berak laguntza handia ematen dit. Izan ere, musika estudioan aritzea taldeen soinua grabatzea baino askoz ere gehiago da. Nahasketak egin, making off-ak prestatu... eta, hortaz, bion artean egiten ditugu horiek guztiak.

**5. Zenbat denbora behar dute taldeek batez beste disko bat grabatzeko?**  
Lanak dituen abestien arabera, baina 10 edo 12 abesti inguruko CD bat egiteko hilabete bat behar-ko litzateke.

**“Zuzeneko kontzertuek ematen didaten adrenalina ez dit estudioak ematen, baina, sormena lantzen dut”**

**6. Abestiak ez dira egun bakarrean grabatzen ahal.**  
Ez. Jende askok agian ez du jakin, baina abestiak ez dira osorik grabatzen. Hau da, lehenik bateriaren soinua grabatzen da, gero baxua grabatzen dugu, gero gitarra eta ondoren haize tresnak, trikitixak edo bestelakoak. Azken ahotsa izaten da.

**7. Zein taldek grabatu du zurekin?**  
Bi urte hauetan talde asko pasatu da gure estudioetatik. Arrebotte, Desbarrios Varios, Alerta Gorria, Blindatu, Frenetik, Distorsion Toxica, Nekez... eta datozen hilabeteetan beste asko ere hitzartuak ditugu. Musika estilo ezberdinetako taldeak izan ditugu.

**8. Estudioan ez ezik, zuzeneko kontzertuetan ere aritzen zara lanean.**

Zuzeneko kontzertuak ez ditut utzi, ez. Horretan aritzea eta estudioa txikiagoa izatea espero nuen, urtean bi disko grabatzea espero nuen. Baina, askoz ere gehiago ari gara egiten; beraz, oso kontent gaude.

**9. Bata edo beste aukeratzekoan, zein?**  
Oso ezberdinak dira bi lanak. Xarma handiagoa du zuzenekoak. Adrenalina gehiago du. Gehiago erakartzen nau. Baina, estudioan ez nintzen sekula aritu, eta asko ikasten ari naiz. Interesgarria da musika lanak grabatu, nahastu eta ematen dituen aukera guztietan trebatzeko aukera izatea.

**10. Zein aukera eskaintzen duzue estudio honekin?**  
Musika taldeak izan dira bertan lanak grabatu dituzten gehienak, baina bakarlariek ere izan ditugu. Abesti bakanak grabatzera ere etorri da jendea. Edozein gauza graba daiteke. Kasetetan grabazio bereziak dituztenak ere hurbildu zaizkigu, grabazio horiek digitalizatzeko.

**11. Taldeek, bakarlariek... egin dezakete bat zuekin...**  
Bai, nahi duen guztiak. Aukera anitza eskaintzen du estudioak, eta gu prest gaude eskaintza guztiak aztertzeko. Itxura estudioak interneten ere badago: itxuraestudioak.com webgunearen bidez eskura daiteke informazio guztia.